

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILLOPE

NEGU BERRIARI ONGI ETORRI BEROA

276

2020ko ilbeltza

TOKIKOM



ORAIN DA GARAIA

2019ko azaroaren 10eko hauteskundeetako emaitzek eta, bereziki, PSOE-UNIDAS PODEMOS alderdien arteko koalizio-gobernuaren proiektuak aukera eskaintzen du indar aurrerakoi eta subiranisten arteko akordio zabala lortzeko, betiere benetako aldaketarako agenda beteko duten aldarrikapen sozialak eta nazionalak oinarri hartuta.

SAREK mezu bakarra helarazi nahi die Euskal Herriko indar politikoei: ORAIN DA GARAIA!!

Orain jarri behar dute EAEko eta Nafarroako euskal agendek leku NABARMENEAN espesxe-politika aldatzeko aldarrikapena, euskal diputatuek edozein akordio babesteko edo abstentziora jotzeko *sine qua non* baldintza gisa. Politika horrek oinarri simple bat, baina, aldi berean, oso garrantzitsua izan behar du, GIZA ES-KUBIDEAK, eta euskal presoei aplikatzen zaien salbuespen-araubideari amaiera ematea ekarri behar du.

Gai hau Estatuaren agendan sartu behar da. Salbuespen-politikaren ordez, espesxea humanizatu egin behar da.

Ez da ulertzen indarkeria maila gorenean zegoen uneetan bezain krudela izatea orain espesxe-politika. Ez da ulertzen ere, sakabanaketaren xedea izanda militanteei eta senideei presioa egitea ETA desagerrarazteko, oraindik ere sakabanaketari eustea ETA 2018ko maiatzean desegin ondoren.

Preso dagoen senidea 40 minutuz ikusi ahal izateko, 1.000 edo 2.000 kilometro egin behar izatea gizatasun-irizpideen barruan sartzen da, ala?

Gaixotasun larriak dituzten presoak espesxean mantentzea, edo hiltzeko denbora gutxi falta zainean baino ez askatzea, duela gutxi hil den José Ángel Otxoa de Eriberen kasuan bezala, justizia-irizpideetan oinarrituta dago, ala?

Eta, pertsona hauek salbuespen-erregimen bat aplikatzea, biziarteko espesxealdi ezkutua ezarrita, legearekiko ekitate- eta berdintasun-irizpideen edo gizarteratze-ko irizpideen arabera da, ala?

EAEko eta Nafarroako erakundeetan behin eta berriro aldarrikapen hau babestu duten euskal alderdi politi-

koei, hau da, EAJ/PNV, EH BILDU, PSE, PSN, ELKARREKIN PODEMOS, GEROA BAI eta Ezker Batuari hau adierazi nahi diegu:

1.- Gure aitortza eta esker ona helarazi nahi dizkiegu, Gasteizko eta Iruñeko parlamentuetan, lurralde historikoetako Batzar Nagusietan eta udal askotan, urruntze-politikari amaiera ematearen alde, gaixotasun larriak dituzten presoan askatasunaren alde, gradu-aldaketaren kudeaketa normalizatuaren alde edo espeshteen arloko eskumena transferitzearen alde sustatu dituzten erabaki eta ebazpen guztiengatik.

2.- Halaber, erakundeetan erakutsitako konpromiso horretan oinarrituta, eskatu nahi dizuegu erabaki eta ebazpen horiek estatuko gobernu berria osatzeko negoziazioan islatzeko. Lortutako akordioak aktibatzeko eta Euskal Herrian onartu izan denari balioa emateko unea da, orain arte testigantzakoak izatera mugatu diren erabaki garrantzitsu horiek HELBURU SAIHESTEZIN ETA ATZERAERAZIN honen aurkezpen-txartela izan daitezten.

Euskal gizarteak aldarrikapen honi ematen dio babesa erakusteko unea da; indarkeriari eta haren ondorioei amaiera emateko prozesua ixteko unea da.

Etorkizuneko belaunaldiek ez dezatela aukerarik izan guri ezer leporatzeko gure erantzukizunak alde batera utzi ditugulako, edo aukerak ez ditugulako aprobetxatu. Gure ardura da, gizarte zibilarena eta Gorte Nagusietan gure ordezkari politiko direnena, gorrotoaren, sufrimenduaren eta mendekuaren atea erabat ixtea edo, gutxienez, apur bat ixtea, gaurko eta etorkizuneko bakea eta bizikidetzara eraikitzeke orain dugun aukera apartaz baliatuta.

EZ BADA ORAIN, NOIZ?

Sare Herritarra (Araitz-Beteluko presoan eskubideen aldeko taldeak bidalia).

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com


Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO



BIDEGO X JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



05 BERTSO BERRIAK

06 ELKARRIZKETA: Jesi Ansorena.

09 KUXKUXEAN: Ilbeltzeko zorion agurrak.

10 MOKOKA

11 PRINTZA

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Larraungo Pilota Elkartea

20 KULTURA

24 ELKARRIZKETATXOA

27 KIROLA

28 PLAZATIK PLAZARA

31 KONTU TXIKIAK

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Sastraka, Beteluko Udala, Ondare Kultur Taldea, Agurtzane Altuna, Ainhoa Azpiroz, Andoni Tolosa, Ibarberri ikastetxea, Araxes ikastetxea, Agustin Saralegi eta Printza.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.


• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udala, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

IBARBERRI



Kaixo Mailope irakurle :

Lekunberriko Ibarberri eskolako 1.A mailako ikasleak gara.

Nortzuk garen jakin nahi baduzue gure argazki bat eta gure izenak bidaltzen ditugu gu ezagutzeko aukera izan dezazuen.

Oso pozik gaude Eguberriak eta oporrak iritsi direlako .

GABON ZORION !!

Itatz Julen Eder Aimar
Maraton Aingeru Anneg.
Mike Martina Lilia
Amae Janz Alai Naia Sofia Fatou Golri

eskolatik
mailopera



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara




**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com.



BARTOLO TUNELA ITXITA

Joan den abenduaren hasieran jakinarazi zuen Plazaola Partzuergo Turistikoak, Lekunberri eta Uitziz artean dagoen Bartolo tunela itxi behar izan dutela. Antza goialdetik harriak erortzeko arriskua dago eta garbiketa eta egonkortze lanak iraun bitartean itxita jarraituko du.



MUSIKA ETA MUGIMENDUA

Aralar Musika Eskolak ilbeltzaren 10, 17, 24, 31 eta otsailaren 7 eta 14an eskainiko duen Musika eta mugimendua izeneko ikastaroan parte hartzeko azken plazak gelditzen dira. Ikastaroa 2016an jaiotakoei zuzendurik dago. Harremanetarako: 672 122 472 edo info@aralar.org.



SASTRAKAK 10 URTE BETE DITU

4x4 ibilgailuetan berezitua den Sastraka tailek bere hamargarren urtea bete du. Abenduaren 20an Toki Alai Sagardotegian ospatu zuten Sastrakako langileek euren bezeroekin batera.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Maddi Urra (Irurtzun)

*Udaletxeak dio
hona ez etorri
Mezua Erdi Arotik
ahal dute igorri?
Haien irri direnez
gureen jatorri
erantzun behar diogu
iraultza hasiera horri
Sentitu pentsatu ta
ekin sudur gorri!*

*Oihu egin nahiean
ia 11.000
arima urratu arte
kantatuz xalala
Berri txarren bultzada
kultura euskara
bota zuten putzura
beraien zentsura
Ilargira ta bueltan
irria mundura!*

Doinua: Maisu Ruanda.

Joxe Mugirorentzako puntua:
kirolaren baldintza
berdinak helburu
Oinak:
Deiadarra, beharra,
indarra, irribarra

“Ekoizle txikiei esker, inon topatuko ez duzun arropa duzu aukeran”

Orain dela zortzi urte erabili zuen lehen aldiz josteko makina Jesi Ansorenak eta gaur egun neurria egin-dako jantziak sortzen ditu eta Muroak markarekin ditu salgai.

Txantrearra zara, baina harreman estua duzu Araitzekin...

Bai. Ebanisteria ikasi nuen eta hemezortzi urterekin hiru edo lau hilabetez Juan Gorritiren ikaslea izan nintzen. Lekua eta bertako jendea gustatu zitzaidan eta handik bi urtetara Uztegiara etorri nintzen bizitzera. Ondoren, bi urtez Atalloarra ostalua ere hartu nuen. Geroztik ibar horrekin harremana daukat. Atalloarra utzi eta gero nire lehenengo semea izan nuen eta Iruñera bueltatu ginen momentu hartan ez genuelako alokatze-ko etxebizitza gustukorik topatu.

Hamar urteren ondoren ordea bueltatu egin zinen...

Bai, orain dela lau urte kasualitatez jakin nuen Atalluko Apeztxea alokairuan jarri zutela eta ordutik oporraldiak eta libre ditugun egunak bertan pasatzen ditugu.

“Sormena nonbaitetik ateratzeko dudak beharra asetzeko egiten dut”

Azken urteotan zertan ibili zara lanean?

Ni diziplina anitzekoa naiz. Lanpostu mota ezberdinetan aritu naiz, sukaldari, zerbitzari, bizikletak konpontzen... Ez naiz inoiz gauza bakarra egiten aritu. Hurrekin ez neukan hainbeste denbora eta altzairuak egitearena ezinezkoa zitzaidan. Horregatik orain dela zortzi urte josten hasi nintzen. Nik ordura arte ez nekien josten, autodidakta naiz. Amak josteko makina oparitu zidan eta oinarrizko gauzak erakutsi zizkidan erabiltzen hasteko eta, gaur arte. Txeloa jotzen dut, margotzea ere gustatzen zait, baina ez nuen denborarik horiek egiteko eta etxeko lanak egiten nituen bitartean josten hasi nintzen. Eskulanak oso interesgarriak dira, baina gainera zure jantziak edo gauzak konpontzeko baliogarriak badira are gehiago.

Eta noiz erabaki zenuen saltzeko arropa egiten hastea?

Hasieratik. Arropa osagarri eta apaingarriekin pertsonalizatzen hasi nintzen, haur da jantziak eraldatzen. Eta gero, arropa patroirik gabe egiten hasi nintzen. Bakarrak diren jantziak egiten saiatzen naiz. Gaur egun bizi garen mundu globalizatu honetan uste dut pixka bat atzera egin behar dugula. Garai batean sastrearengana edo modistarengana joan eta berak zure neurria egindako jantzia sortzen zuen. Eta horrek balio handia dauka. Gaur egun dendara joan eta ezarrita dauden taila horiek askotan ez dira gure gorputzaren formara egokitzen. Ekoizle txikiei esker, inon topatuko ez duzun arropa duzu eta



Jesi Ansorenak jantzien kontsumo kontzientea goa defendatzen du. Arg. Labrit

gainera zure gorputzera egokitua. Denda handietara goazenean ez dakigu jantziak nori josi dituen, zein egoeratan, zenbat ordaindu dieten, zein kutsadura eragin duen...

Elikadurarekin pixkanaka bertakoa kontsumitzearen aldeko joera ematen ari da. Jantziekin oraindik ez?

Ez. Bada jendea asko baloratzen duena eskuz egindakoa eta atzean dagoen pertsona hori. Eta pixkanaka geroz eta gehiago dira, baina asko kostako zai-gu. Hala ere, nabaritzen dut herrietan jendeak ezberdin kontsumitzen duela. Hirietan kontsumismoa egunerokoan dago, bost metro bakoitzeko denda bat duzulako.

Aisia ere bihurtu da arropa erostera joatea...

Bai eta beharrik gabe. Elikagaiekin bezala, behar baino jantzi gehiago ekoizten dira. Ez gaude horrenbeste kontsumitzaile eta ez du zentzurik hainbeste saltzeak. Kiloak eta kiloak ekoizten dira, gero saltzen ez diren arropa kiloak.

Pasarelak eta azokak ere egin dituzu...

La Hormiga Atómican (gaur egungo Katakak) egin nuen nire lehenengo arropa erakusketa. Horrela hasi nintzen eta, ondoren, ia urtero erakusketa edo pasarela bat egiten nuen. Alor horretan zebilen jendearekin harreman gehiago izaten hasi nintzen eta bertako sei marken artean pasarela bat antolatzea lortu genuen. Geroztik beste hainbat egin ditut. Azoka askotan ere ibili naiz. Azkena abenduan, Burlatan. Baina jada bi urte dira apenas azoketara joaten ez naizela. Oso gogorra da. Postua jarri, arropa mugitu, zikintzen bada garbitu egin behar da... Eskatzen duen exekuzio horrek guztiak ez du ematen. Azken batean, honek ez dit jatekorik



Kolore biziak bestelako koloreekin konbinatzen ditu. Arg: Labrit.

ematen. Oihalen prezioa oso altua da, oso margen txikia gelditzen zaizu eta ordu asko sartu behar dituzu. Sormena nonbaitetik ateratzeko dudaren beharra asetzeko egiten dut. Dagoeneko ezagutzen nauten bezero finkoak dauzkat eta eskarien bitartez egiten dut lan gehiena. Argi daukat, ni sortzailea naizela eta ez saltzailea. Gehiago pentsatzen dut ekoizpenarekin gozatzearekin eta ez horrenbeste saltzera irtetearekin baino.

Hala ere, Araizko Zaporeak antolatzen duen azokan ez duzu hutsik egiten, ezta?

Ez, azoka berezia da hori niretzat, bertako ekoizleen azoka delako. Garai batean Dormitaleria 54 izeneko gunea bat sortu genuen hainbat artisten artean. Halako elkarteak lagungarriak dira, halako guneei esker zuk sortutakoak jendeari zuzenean erakusteko aukera duzulako galera ekonomiko handirik izan gabe. Gaur egun ekoizle txikiarentzat denda bat izatea ezinezkoa delako. Horrez gain, blog bat eta Facebook orrialdea erabiltzen dut nik sortutako jantziak erakusteko.



“Eskulanak oso interesgarriak dira, baina gainera zure jantziak edo gauzak konpontzeko baliogarriak badira are gehiago”



Urtaro ezberdinetarako jantziak diseinatzen ditu Jesik.
Arg: Jesi Ansorena.

Harremanetarako:
650862929
patojilla@hotmail.com
mastrook.blogspot.com
www.facebook.com/jesi.ansorenaarevalo

Norentzako arropa egiten duzu?

Denetik egiten dut, gizon, emakumezko nahiz haurrentzako. Oihalezko jostailuak ere egiten ditut. Baina denak ezberdinak izan daitezten saiatzen naiz. Oihal bat ikusi orduko irudikatzen hasten naiz zein izanen den patroia eta zen itxura izanen duen. Tarteka gustatzen zait ere oihala eta manikia hartu eta buztinarekin egiten den moduan forma ematen joatea.

Eta etorkizunean non ikusten duzu zeure burua?

Ziur aski okindegi batean lanean jarraituko dut. Bizitzan bi denbora mota ditugu. Alde batetik diruaren truke ematen dugun denbora eta bestetik gure sormena piztuarazteko ematen duguna. Gaur egun, ekoizle txikiok jertse bat ekoizteko ema-

ten ditugu orduak ez digute inoiz ordainduko eta bizirauteko beste lanpostu bat behar dugu. Hala ere, gaur egun badira bizpahiru toki berriak sortutakoak saltzen dituztenak. Beraz, horrek esan nahi du badela beste modu batean erosten duen jendea ere.

Zer iruditzen zaizu Araitz eta Bete-lun bertakoa kontsumitzeko sortu den mugimendua?

Oso ados nago horrekin, gainera uste dut aukera badagoela burujabetza hori lortzeko. Ez gara ohar-tzen, baina askotan gure inguruan daukagu behar dugun gehiena. Gai bagina indibidualtasuna alde batera utzi eta horri aukera bat emateko, nik uste dut boterea lortuko genukeela. Ni hirira joaten banaiz erostera, agian merkeagoa aterako zait, baina mugitzeak ere gastua dakar beraz... Idealena litzateke bertakook bertan kontsumitzen dena eskuragarri izatea eta ahal bada kanpora saldu behar dugunean garestiago saltzea garraioaren gastua orekatzeko. Denok bertakoa kontsumitzeko modua bilatu behar dugu. Bertakoa eskuragarriago egin. Nik oraindik ez dut ulertzen nola ez dugun bertako produktu guztiak salduko dituen dena bat, kanpokoendako nahiz bertakoendako. Bultzada hori behar dela uste dut!

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com



Mikel Aldareguia Mateo
Urtarrilaren 9an, 3 urte.
*Zorionak eta ongi pasa.
Muxu haundi bat, aitatxo eta
amatxoren partez. Hain maite
zaitugu.*



Ane Amoztegui Goikoetxea
Urtarrilaren 13an, urte bat.
*Zorionak Ane! Urte bete jaio zinenetik,
ze azkar pasatzen den denbora! Egun
politte izan pottoki eta muxu pille
etxeko guztien partez.*

Eñaut Garmendia Aristi
Urtarrilaren 4an, 2 urte.
*Zorionak ttiki!! Ez galdu seku-
la irrifartxo hoi. Muxu haundi
bat etxekon partez.*



Enara Etxarri Urbizu
Ilbeltzaren 18an, 6 urte.
*Zorionak Enaratxu! Jai txiki
bat egingo dugu, bai? On-
gi-ongi pasako dugu! Muxu
handi bat senide guztien
partez!*



Unai Argiñarena Saralegi
Ilbeltzaren 16an 5 urte.
*Zorionak eta urte askotako pottoko!
Jarraitu dantzan eta kantari! Egun
polit bat pasa dezazula, muxu haundi
bat etxekoen partez.*

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatz iezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

Antigüedades Gastón

ZURGINTZA OROKORRA, 948 302 916 - 615 850 174
ALTZARI RUSTIKOETAN ETA info@antiguedadesgaston.com
ZAHARBERRITZETAN BEREZITUA. www.antiguedadesgaston.com

- ✓ Lan mota guztiak egiten ditugu zurarekin, batez ere haritz zaharrekinekin.
- ✓ Ekarriguzu zure altzari edo dekorazio ideia eta zure neurria egindako aurrekontua prestatuko dizugu, konpromisorik gabe.
- ✓ Zaharberritze ikastaroak ere eskaintzen ditugu.

Gipuzkoa errepidea, 11. km.
Gilledi industrialdea, 1 (Gasolindegiaaren alboan)
31892 Sarasa.



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADII! TLF BERRIA:

948 51 30 32



panaderia okindegia

GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

Zaborra opari



●● Andrea Etxarri

Eguberri on, Pello! Nola doaz oporrak? Nik atzo bertan hasi nituen jaiegunak eta egia esan disfrutatzen ari naiz Gabon aurreko lasaitasun egun hauetaz. Goizeko orduak ohean luzatzeko momentuak, paseo lasaiak egiteko tar-teak, elkartu nahi duzunekin egoteko aukerak... edo bes-terik gabe, bizitza lasai hartzeko uneak. Hori bai, bada egun hauetan gehienok egiten ari garen beste gauza bat: erosketak.

Nahiz eta duela egun gutxi telebista kateak gizakiak Lurrean duen eraginak duen ardu-raz josiak egon, haize bolada batek eramango balu bezala denok ero moduan erosketak egiten gabilta. Ez dut "aguafiestas" edo zapuztailea izan nahi, nik ere benetan go-goko baititut garai hauek, baina gure jokabideetan zentzu pixka bat jartzeko garaia ere heldu dela uste dut.

Zenbati gertatu zaizue norbaiti zer erosi ez dakizuela zaudete-la? Zenbatetan eskaini duzu opari-tiketa, oparia gustuko ez badu bueltatu dezan? (Zer erosi eman dizkiozun buelta guztien ondoren). Zenbatetan jaso duzue gustuko ez duzuen zerbait? Hau bi arrazoiengatik gerta daiteke: lehena, pertsona hori ez dugulako nahikoa ezagutzen, eta bigarrena, denetarik dugunez edozer nahikoa ez delako. Gehiengo handi batek gure egunerokoan erosten baititugu behar ditugun gauza guztiak. Beno, behar ditugunak eta desio ditugunak, nahiz eta hain beharrezko ez izan. Beraz, Gabonak iristen direnean, guregandik jaiotzen den nahiak baino behar sozialak bultzatzen gaitu erostera. Eta azkenik, beharrezko ez diren milaka gauzaren zabor tontorrek sortzen ditugu.

Norbaiti zerbait oparitzea oso keinu polita da, baina nire ustez, gehiago beharko luke opariak inplikazio emozionala ekonomikoa baino, berarekin oroitutako garelako adierazten duen zerbait. Besarkada batek, esker oneko hitz batzuek edota elkarrekin denbora pasatzeko planek gehiago bete eta gutxiago kutsatzen dute. Jar diezaiegun ilusio gehiago eta material gutxiago gure opariei. Zuk nola ikusten duzu, Pello?



●● Pello Azpirotz

Kaixo, Andrea!!! Gabonen zalea naiz eta aurtengoak ere ederrak izaten ari dira nire kasuan. Hurbilekoekin gehi-ago egoteko aukera ematen dute jai egun berezi hauek eta horregatik aprobetxatu behar dira ahalik eta gehiena. Eta bai, ingurukoekin egoteko garaia izateaz gain; erosketak masiboki egiten diren garaia ere badira Gabonak.

Kontuan hartu behar dugu neurrigabeko kontsumo eredu honetatik ihes egitea oso zaila dela. Kontziente izan behar gara erosketak egiterakoan daramagun kontsumo eta ekoi-zpen eredu hau ez dela bideragarria, bere muga dauka eta une hori uste baino lehenago ezagutuko dugulakoan nago. Inoiz baino gauza gehi-ago dauzkagu eskuragarri eta denetik erosten dugu nahiz eta horietatik gehienak behar ez. Nire ustez, Gabonetako egiten diren erosketak gehienek behar erreala baino gizarte kapitalista honetan eraikitako "beharrak" betetzen dituzte (naturalak direla pentsaraziz barneratu ditugun behar ez errealak). Denok ditugu etxean gutxi edo ia ezer erabili ez diren opariak.

Zer oparitu pentsatzerakoan zailtasunak izaten ditugu eta ni behintzat erabilgarriak direnak bilatzen saiatzen naiz. Nahiz eta lan gehiago eskaini behar zaien, batez ere gogoko ditudan opariak norberak egindakoak edo norberaren "ukitu" bat dutenak dira. Noski, ez dira derrigorrean materialak izan behar. Zuk diozun bezala, balio emozional handia duten opariak dira politenak eta baloratuenak. Batzuetan, sentsazioa daukat opari asko egiten direla beste hutsune batzuk betetzen (hutsune emozionala adibidez) zailtasunak ditugulako.

Hala ere, Gabonetako oparirik hoberena zure gertukoekin egotea da zalantzarik gabe, momentu txiki bezain eder horiek elkarrekin bizitzea. Urteak aurrera joan ahala (batez ere hau izatetik heldu izatera pasatzen zarenean) jabetzen zara benetan zer den garrantzitsuena. Gozatu zure ingurukoekin eta hurrengo urtera arte. Zorionak eta urte berri on!!!



Eguna gauari irabaziz

Urteari bukaera ona emateko, ohiko deialdiez gain, hiru ekimen aipagarri izan ditugu abenduan.

Mendialdeko Gazte Topaketa

Nafarroa iparraldeko hainbat gazte elkartu ginen Printzan, elkar ezagutu eta ikaspenak elkarbanatzeaz gain, hausnartu eta lan egiteko aukera ere izan genuen. Bereziki interesgarria izan zen eskualde bakoitzeko

gazte mugimenduaren egoera zein zen ezagutzea. Antzeko bizipenen ispilu izan ginen sarri eta eredu zein erronka berrien ezagupenak, esperantzarako iturri bilakatu ziren.

Testu bat oinarri hartuta, gizartearen egituraren eta errealitatearen inguruko hausnarketa kolektiboak ere eman genituen. Tarte mamitsua izan zen honakoa eta gehiago sakontzen jarraitzeko gogoia piztu zitzaigun gehienoi. Dena den, lehen unetik osatu genuen talde izaera izan zen gauzarik ederretakoa. Ezagutza jolasetatik hasi, Alaitz eta Leire Olanoren kontzertuarekin segi eta auzolanean sentitzen zen giro onak, elkarri berriz ere noiz elkartuko ote ginen galdetzerara eraman gintuen. Bien bitartean, norberak bere herrian borrokatzen jarraitzeko gogoberriturik darraigu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu topaketak aurrera eraman zitezten laguntza eman zuten kide guztiei; hala nola, azpiegitura ahalbidetu zutenei, larunbatean bazkaria prestatu zutenei, edota modu batera edo bestera Mendialdeko Gazte Topaketa parte hartu zutenei.



Argirik gabeko bideak, etorkizunik ez du!

Mugarik gabe

Mugarik Gabe erakundeak antolatutik, zenbait egunez ikusgai izan genuen Baratze Kritikoa erakusketari, Uruguaiako Alicia Migliaro ekofeministak gidaturiko "Gorputza eta lurraldea mapeatzen" tailerrarekin eman zitzaion bukaera. Ekologismoa eta feminismoa ehuntzeko asmoz, gure baitako barne bidaiara batean murgildu ginen, jarraian nahi zuenak bizipenak elkarbanatuz. Esperimentu xume bezain atsegina izan zen.

Urte erdi

Udako solstizioari ongi etorria ematearekin batera iritsi zitzaigun Printza gurera. Neguko solstizioan berriz, eguna gauari irabaziz hasi eta proiektuak urte erdi betetzearen poztasunez, adin guztiei zuzenduriko arratsalde pasa goxoa izan genuen. Ana Galarragaren ipuin eta esperimientuek aho bete hortz utzi gintuzten eta Elbira Zipitria irakaslea hobeki ezagutzeko zortea ere izan genuen, Mainer Oleagaren Muga deitzen da pausoa filmarekin.

Honetaz guztiaz gain, masiboki kontsumitzeko egunen aurrean, jadanik eskuragarri dagoen Muxutruk biltegi kolektiboa jarri genuen martxan. Gaur egun bizi garen sistema kapitalistan, ugariak dira kontsumitzeko sentiarazten dituzten behar eta ardurak, baita horretarako ahalmen eza eta ezintasuna ere. Honen aurrean, elkartasunean oinarrituriko dinamika berri honek, merkatu logikatik urrundu eta jostailu, arropa, materiala... kolektibizatzeke aukera ematen digu, erabiltzen ez duzun hori ekarri eta behar duzun hori eskuratuz.

Harremanetarako: larraungoprintza@gmail.com

Harremanetarako: larraungoprintza@gmail.com

URTARRILEKO AGENDA

-Urtarrilak 10, 19:00etan:

Formakuntza-eztabaida saioa. Problematika partzialak, dinamika orokor baten baitan.

-Urtarrilak 17:

·19:00etan: Presoei gutun-trukea.
·21:00etan: Afari soziala. Hilabetero hirugarren ostiralean giro oneko afaria.

-Urtarrilak 18, 11:00etan:

Etxebizitza problematika. Emantzipazio zailtasunak eta irtenbide kolektiboak.

-Urtarrilak 22, 17:00etan:

Porrotxekin irri, kantu eta dantza!

-Urtarrilak 24, 19:00etan:

BERDEA DA MORE BERRIA liburu aurkezpena. Onintza Iruretak liburua aurkeztuko du eta Gipuzkoako zaharren erresidentzietako langile batek, haien borroka zertan den azalduko du.

ZURE ARGI IZPIAK OSATUKO DU

PRINTZA

LURDES LARRAÑAGAREN ARTELANAK LOPENETXIKIA GALERIAN

Azaroan, Lurdes Larrañagak erakusketa bat antolatu zuen Arribeko Lopenetxikia etxean. Lurdes irakaslea izana da eta afizioz margotzen, eta batez ere, marrazten hasi zen. Sortu duen guztiarekin erakusketa bat antolatzea erabaki zuen Araizko lagunekin eta lagunentzat. Lurdesen lan emankorraz gozatzeko aukera izan zuten Lopenetxikiara joan zirenek. Etxean bi gela txukun eta polit prestatu zituzten eta, sarreran, hamaiketako goxoa. Bi gelak artelanez gainezka zeuden, gehien bat erretratuak, arkatzez eta tintaz eginiko erretratuak eta Bilboko La Tallerren sortutako grabatuak. Lurdesek, bisitarietaz azaldu zien bezala, erretratuetan ageri diren pertsona guztiak bere ezagunak dira, familiakoak eta lagunak. Erakusketarako gaika antolatu zituen, begiradak, mugimenduak, bikoteak... Hiru orduz, galeria bihurtu zen Lopenetxikia, jendez gainezka egon zen, eta Lurdesek pazientzia handiz denek kasu egin zien, baten galderak, bestearen argazkiak, erretratuen istorio txikiak eta abar. Grabatuetakarako erabili dituen teknika ezberdinak ere azaldu zizkien, bere gustuko grabatua lortu arte egin behar izaten zituen errepikapenak eta erabilitako materiala eta teknikak erakusten zizkien bitartean. Bai, Lurdesek araztarrentzat eskaini zuen erakusketa berezia izan zen, bertaratu ziren herritar eta lagun askok artelan bat eta guzti eraman zuten opari.



TXIRULA -JOTZAILAEEKIN BATERA ESKAINI DU JESUS JAIMERENA ABESBATZAK GABONETAKO KONTZERTUA

Lekunberriko Jesus Jaimerena Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskaini zuen joan den abenduaren 22an herriko parrokan. Vivaldi edo Purcell bezalako konpositore handien lanez gainera, Eguberrietako abesti tradizional klasikoak ere abestu zituzten. Baita euskarazko zenbait abesti ere, Benito Lertxundiren "Oi Baldorba" edota "Xalbadorren heriotzean" esaterako. Eta noski, amaitzeko ezin falta zitezkeen "Mesias sarritan" abesti ezaguna. Abesbatzako kideez gainera, aurten bi txirula-jotzaile gaztek parte hartu zuten kontzertuan, Markel Ariztimuñok eta Lorea Navascuesek.

LEKUNBERRI ON ATARI DIGITALA

Lekunberriko Udalak Lekunberri On izeneko atari digitala sortu du. *Erabaki.lekunberri.eus* plataformaren bitartez herritarrek dituzten proposamen, ideia edo kexak elarazteko aukera izanen dute, baita etorkizunean egin litezkeen aurrekontu parte-hartzaileetan edota bestelako herri galdekietan digitalki parte hartzeko ere. Eztabaidarako gunea ere izanen da, zure proposamenei gainerako herritarrek euren babesa adierazteko edota euren iritzia emateko aukera ere eskaintzen delako. Herritarrek Udalaren erabakietan modu aktiboan eragiteko balioko duela uste du Udalak, herritarren iritzia ezberdinak jasotzeko tresna interesgarria izanen delako eta sor daitezkeen prozesu parte-hartzaileak eraginkorerragoak izateko. Izen ematea doakoa da errolda bidez egiaztatuko da.

JUAN ANTONIO GARAIKOETXEA OMENDU DU LEKUNBERRIKO UDALAK

Orain dela hilabete batzuk Lekunberriko Udalak argazki lehiaketa jarri zuen martxan hasi berri dugun 2020. urteko egutegia osatzeko. Egutegia dagoeneko eskuragarri dago euro baten truke Mitxausenea Kultur Etxean eta Lekunberriko udaletxean. Argazki sariduna Joseba Merinok ateratakoa izan zen. 300 euroko txartela jaso zuen bertako saltokietan erosketak egiteko. Abenduaren 6an egin zen sari banaketa ekitaldi horretan bestalde, Juan Antonio Garaikoetxea omendu zuen Lekunberriko Udalak argazkilaria gisa herriaren alde egiten duen lanagatik. Urte mordoxxa daramatza Garaikoetxeak eskualdean, baina batez ere Lekunberriin, antolatzen diren ospakizunetako argazkiak ateratzen. Ekitaldi bat dagoen bakoitzean han dago bera bere kamerarekin. Batzuek eurei argazkiak noiz aterako irrikitan beste batzuk aldiz kamera ahalik eta urrutien egon orduan eta lasaiago. Baina zenbat gozatu ohi dugun denok ondoren argazki horiei begira. Eta geroz eta denbora gehiago pasa orduan eta gehiago. Mailopeko kideoi ere zer-nolako faborea askotan bi lekuetara aldi berean ezin iritsi gabiltzanean. Mailopeko kideen izenean ere eskerririk asko Juan Antonio!!





LEHEN SOROSPEN IKASTARO ARRAKASTATSUAK

Azaroan egin zen Lekunberrin lehen sorospenak egiteko lehenengo tailerra eta abenduan bigarren saio bat egin zen. Guztira, 97 lagunek eman zuten izena, nahiz eta pixka bat gutxiago izan diren ondoren ikastaroetan parte hartu dutenak. Mikel Irujo arduratu da saioen antolakuntzaz: "Pozik nago jasotako erantzunarekin. Sentsibilizazio kanpaina handia egin genuen eta biztanleen ia %10ek eman zuen izena. Beraz, oso pozik". Saio horietan kontrako eztarrira joandako elikagaiek sortutako itolarri kasuetan edota bihotzekoak eman dien pertsoneri nola lagundu ikasi zuten, baita desfibrilagailua erabiltzen ere. Desfibrilagailuen erabilera-aren gorakadari esker, nabarmen ari da igotzen bihotzekoen kasuan onik irteten direnen tasa. Batez ere Nafarroan. Gaur egun Lekunberrin lau desfibrilagailu daude, denak kalean eta eskura: Eguneko Zentroan, Plazaola Kiroldegian, Irache Beilatokian eta herriko plazan (Zentro Zibikoaren sarreran). Aurki bosgarren bat jartzeko asmoa ere aztertzen ari da Gizarte Ongizaterako Batzordea. Saio hauen ondorioz 71 lagunek eman dute izena lehen sorospen ikastaro ofizialean. Eta aurten halako saio gehiago eskaintzea aurreikusten da.



MINTZAKIDEAK KONTU KONTARI

Larraungo AEK euskaltegiko Mintzakideak ikasturte berriarekin batera astero elkartzen hasi ziren. Eta geroztik hainbat jarduera ere egin dituzte. Azaroan Ibarberri Ikastetxeko ikasleekin topaketa txiki bat egin zuten euskaltegian bertan. DBH 2. mailako ikasleei euskararen erabilerari buruzko galderak egin zizkieten eta dituzten hizkuntza ohiturei buruz aritu ziren. Bestalde, abenduan, Ondare Kultur Taldeko kideek 2014. urtetik hona egiten ari diren lana ezagutzeko aukera izan zuten. Ondareko lagunek landu dituzten alor ezberdinak eta dituzten helburuak azaldu zizkieten. Guztira, 50 ekintzetatik gora egin dituzte bost urte hauetan.



Kontakizun eztiak

Haurtxoa sehaskan
amaren magaleko epela
amonaren besoetan etorkizuna
sutondoko ipuina
itsaso barea
ilargi betearen argia
unibertsoaren indarra.
Betiko hitz politik,
une goxatuak.
Zein ederrak diren
zein erraz kontaktzen diren
zein faltsuak izan daitezkeen.

Guztiak gezurra direla
ikasi du mutiko txikiak.
-Aita beldur naiz,
esan du ahots lausoaz.
-Ama non da?
galdetzen du.
Bitartean
loreak jarriz hilobi hotzean.

Entzun
isiltasuna naiz.
Sentitu
bakardadea duzu besarkatuz.
Ukitu
ezereza naiz.
Usaindu
akats guztien kiratsa naiz.
Ikusi
ispiluan deabrua naiz.

Prestatu bihotza
espetxeko horma hotzetik
askatasun nahiaren esklabo.
Anestesia
musika eta hitza
arima aseezina.
Pixkanaka heriotzari deitu.

Ahots arrotzen lemak
iparrik gabeko haize-orratzak.
Beraiek dioten ekintza naiz
beraiek zuzenduriko obra bat
antzeztokian txotxongiloa naiz
ikuslearen begietan
arrosa ederra.
Itzalen atsekabeen
lokarriz estu lotua.

Irri egitera behartua

Nahi dutenaren jarraitzaile naiz
egin nahi didatenaren lekuko
instrumentu eta arazo naiz.

Koloreak aldatu nahi dizkidate
ortzadarra erauzi
udaberria kimatu nahi didate
sustraiak bahitu
zuhaitz ustelean txertatu.

Eraiki duguna beraienganatu,
ohiturak eten
ametsak protokolizatu.
Neurea, gurea bortxatu.

Izena aldatu nahi didate,
izatea suntsitu.
naizena lapurtu.

Atzoaren uhartera bidali nahi
naute
erbesteratu, ahaztu.
Umezurtz utzi nahi naute
irriak espetxeratu
hizkuntzak kolonizatu.
Borrokan erauzitako odola
lurperatu.
guda zelaia monopolizatu.
Artisauari eskua moztu.

Basoak eta itsasoa plastikoz
eraiki.
Zapore eta usainak asmatu
doinuak eta istorioak deuseztatu
ezereza normalizatu.

Izara azpiko piztiak elikatu
etorkizunak beltzez margotu
beltzaren margolaria saritu
saritua goraiatzera behartu.

Bakea paperetan sinatu
papera egunkarietan argitaratu
egunkariak manipulatu
eskutitz zaharren artean ahaztu.

Fruituak landatzen dituzte
plastikozko lurretan.
Zomorroak hiltzeko mutagenoa
botaz
probetaz ongarritutako bizitzan.

Egunsentian promesa berriak
gauerako betikoak ekintzak.
Ezberdin dena gutxitu
umeak automatizatu
zoriontasun ustela
poltsikoko museo bilakatu.

Betiko hitz politik.
Agian ez daude horren gaizki
Betiko hitz politik,
une goxatuak
kontakizun eztiak.



euze

●● Leire Aranburu

Besarkadak sendatzeko

Sakya tribuko erregina bere jaioterri itzultzen ari zela, erditzeko minak etorri zitzaizkion eta Siddhartha Gautama printzea munduratu zuen zuhaitz eder handi baten oinetan. Hainbat urte beranduago, horren umil jaiotakoa, Buda izatera iritsi zen.

Euskal Herrian ez dauzkagu hango zuhaitzak, bai, aldiz, haritz ederrak, esaterako. Haritzek ezkurak ematen dituzte eta hauek ernaltzean zuhaitza garatzen da. Jaio berria denean zuhaixkak inguru eta eguraldi aproposak behar ditu ongi garatzeko. Behar dituen baldintzak betetzen badira, urteen poderioz zuhaitz ederra garatuko da eta luze iraun dezake zutik.

Guk ere txikitan behar bezalako baldintzak badauzkagu, ongi garatuko gara eta heldu osasuntsuak izatera iritsiko gara. Baina baldintza hauek ez dira zenbaitetan guztiz betetzen eta gutako asko iristen gara gabeziek jotako helduak izatera. Hauen ondorioak gorputzak erakutsi ditzake gaixotasunen edo zailtasun psikologikoen bitartez.

Tximinoen ahaideak gara eta, hortaz, gizaki sozialak. Honek esan nahi du, besteak beste, taldekoekin loturak izan eta mantentzeko kontaktua behar dugula, kontaktu fisikoa. Tximinoen artean besarkadak, laztanak, zorriak eta beste intsektuak elkarri kentzea eta, maiz elkar ukitzea edozein arrazoi medio, ohi-koak dira. Eta hau helduen artean egiten bada, are gehiago heldu eta haurren artean. Gogoan daukat uda honetan ari ginela gertutik ikusten



tximino ama batek nola ukitu eta aztertzen zuen atentzio handiz bere kumetxoaren ilea eta honek jartzen zuen gustu aurpegia. Hurbildu zitzaien ama honi beste tximino gazte bat ukitze berak jasotzera eta ama, gaztearen ilean kontu handiz zorrien bila zebilen bitartean, tximinoa erabat lo geratu zen.

Eta guk, tximinoak ez bagara ere, oso antzeko beharrak dauzkagu. Gazte-gaztetan, behar ditugu ama eta aitaren besoak, haien laztanak, haien besarkadak, haien musuak. Eta hauek gutxi direnean edo ez daudenean, sufritu egiten dugu. Sufrimendu hau, maiz ez dago gure memorian, baina hala ere, gorputzak edo buruak azalduko du hainbat modutan. Beste kultura batzuk ez bezala, gure kultura hotza da, kontaktu gutxikoa. Eta honek gehie-

noi mina eragin ohi digu. Nik neuk ez ditut gogoratzen nire amaren besarkada eta musuak. Esango nuke ez zirela egon. Bai, aldiz, nire aitarenak.

Nik ere, aita bihurtzean, nire umeak besoetan izan ditut oso maiz, edozein momentutan. Eta inoiz baten batek esan dit horrela ez egiteko, gaizki ohitzen baitira umeak. Baina umeak behar du kontaktua, zalantzarik gabe. Izatez, amaren barruan gaudenean etengabeko kontaktuan gaude amarekin eta jaiotzean galdu egiten da aukera hori. Gainera, orain dela gutxi arte, umea jaiotzean amarengandik aparte eramaten zen, garbitzera, aztertzerara eta ez dakit zer gehiago egitera. Egun, umea jaiotzean amaren gainean jartzen dute, kontaktua egon dadin, ikusi baitute zein garrantzitsua den gure osasun fisiko eta psikologikorako. Baina ez bakarrik jaiotzean, haurrak etengabe behar du ukitua sentitzea, oso oinarrizko beharra baita gure burua, gure psikea ongi garatzeko. Izan ere, kontaktuak suposa dezake pertsona baten sustrai psikologikoak ongi errotzea. Faltan bada, gure sustraietan geratuko da gabezia eta, azterketa askok erakusten diguten bezala, hainbat eragin negatibo sortu. Eragin hauek, helduak bihurtzean ere agerian egongo dira eta ulertzen ez ditugun min askoren oinarrietan. Hortaz, har ditzagun umeak besoetan, eta guk helduok, aprobetxa dezagun edozein momentu elkar besarkatzeko.



Pilotakadaz pilotakada, Larraungo Pilota Elkartearen alde lanean

Igor Mitxaus, Lourdes Noguera eta Mikel Ijurko arduratzen dira gaur egun Larraungo Pilota Elkartearen zuzendaritzaz. Sasoi betean dago elkarteak. 95 kide inguru ditu pilota eskolak eta datozen urteetan bertako pilotarien maila hobetzea dute erronka handiena.

Kirol elkarte guztiek bezala Larraungo Pilota Elkarteak ere garai hobeak eta okerragoak izan ditu sortuz geroztik. Estatutuen arabera, 1992an sortu zen elkarteak, nahiz eta betidanik izan den Larraunen pilotan jokatzeko ohitura. Urte hartan Guillermo Mazok, Don Jesus Jaimerena eta Carlos Baldak

Larraungo Pilota Elkarteak sortzeko estatutuak sinatu zituzten. Geroztik asko izan dira modu batean edo bestean laguntzen eta entrenatzaile lanetan aritu direnak, Iñigo Arozena, Joxe Mari Astiz, Angel Soroa, Aimar Lansalot, Julio Soto, Josu Oreja... Ora in dela sei urte hartu zuten Igor Mi-

txausek, Lourdes Noguera eta Mikel Ijurko elkartearen zuzendaritzaren ardura. Igor Mitxaus: "Hasi ginenean, estatutuak berrikusi eta eguneratu egin genituen. Ez genituen pilotariak kategoria guztietan eta pixkanaka hori lortu dugu". Gaur egun 95 haur eta gazte dabilta pilota eskolan eta esan liteke Larraunek kategoria guztietan ordezkaririk dituela. Mikel Ijurko: "Gure garaian Guillermo Mazorekin entrenatzen genuen, Lekunberriko frontoian. Baina orduan ona zenak aurrera egiten zuten eta beste guztiak kanpora. Onenak entrenatzen zituen. Hori guztiz aldatu da egun". Izan ere, Pilota Elkartearen helburua pilotan jokatzeko irakatsi eta ahalik eta maila





Iñaki Galarza eta Iñigo Gurrea txapeldun izan dira Nafarroako Binakako Txapelketan, Senior 2. mailan. Eta Julen Sotil betelurrak ere txapela eraman zuen Sopelan.

onena lortzen laguntzeaz gainera, kirolaren bitartez heztea ere bada. Horregatik denek dute bertan jokatzeko aukera. Horretarako entrenatzaileen lana ezinbestekoa da. Igor: *"Urtero lortzen dugu entrenatzaile izatera animatzen den norabita, baina egonkorragoak izatea gustatuko litzaiguke. Urtero entrenatzaileak aldatzea ez da komenigarria, umeak ere ohitu edo konfiantza hartzen dutenerako aldatu egiten diezulako. Hori egonkortzea lortu behar dugu eta entrenatzaileak formatzen joan"*. Gaur egun palako saioetaz Andrea Ijurko, Maddi Galarza eta Xabi Azpirotz arduratzen dira eta pilotako entrenamenduetaz berriz, Oinatz Iriarte, Iñigo Gurrea eta Juan Miguel Soroa. Prestakuntza fisikoa Martxel Kalonge leitzarrak ematen die.

Babes ekonomikoa ere ezinbestekoa da. Gaur egun, 31 babesle ditu elkarteak eta Kirol Mankomunitateko ekarpenari esker eta Pilarika Jaietako saskiaren zozketari esker, eskolako ki-deek urtean 110 euro baino ez dituzte ordaintzen.

Frontoi hotza da Lekunberrikoa, garai honetan batez ere. Baina astelehenetik ostiralera behintzat arratsaldero beteta egoten da. Pilota eskolako helduenak Aldazko frontoian entrenatzen hasi dira. Mikel: *"Futbolarekin alderatuta esaterako pilotak badu alde gogorrago bat. Partiduei askotan bakarrik egin behar zaio aurre. Donozteberaino joan, takoak jarri, partida jokatu, agian galdu eta, etxera.*



Baina ongi ibiliz gero, asko gozatzen da".

Eta badira ongi dabilzanak. Ikasturteko lehen hilabete hauetan jada zenbait emaitza on jaso ditu elkarteak. Adibidez, Nafarroako Federazioko Pala Txapelketa irabazi zuten Maria Eguzkizak eta Olaia Iriartek In-fatiletan. Eta Kadeteetan ere txapeldun izan ziren Saioa Berekoetxea eta Irati Garziarena. Pilotan berriz, Federazioko Banakako Txapelketan finalera iristea lortu zuten Altor Baldak, Julen Bildarrazek eta Aimar Goldarazanak. Oinatz Iriartek ere Guillermo Mazo Txapelketako finalera iristea lortu zuen. Larraunen entrenatzen duen Julen Sotilek txapela lortu zuen Sopelan eta Iñaki Galarza eta Iñigo Gurrea Nafarroako Binakako Txapelketako txapeldun izan dira.

Palan neskak baino ez dabilta. Eskuz berriz mutilak gehiago dira. Etorkizuneko erronken artean du elkarteak nesken artean goragoko kategorietan ere pilota sustatzea eta orokorrean pilota eskolako maila hobetzea.

Igor: *"Saiakera egiten ari gara eskualde mailako txapelketak antolatzeke. Leitzako eta Beteluko eskolekin batera urtarilean banakako txapelketa egiten dugu eta udaberrian binakakoa. Horrela bertako eskolen arteko harremanak sendotu eta bertan jokatzeko aukera emateko. Eta ea berriro ere Larraunek Nafarroako Herriartekoa irabaztea lortzen dugun, garai batean egiten genuen moduan. Horretarako lanean gabilta"*.

“Ez nuen espero ikasturtea horren ongi hastea”

Baraibarko Oinatz Iriartek zortzi urte zituenetik darama pilotan jokatzeko Larraungo Pilota Elkartearen. Hamasei urte ditu orain eta Jubeniletan dabil. Aurten Guillermo Mazo Txapelketa irabazi du.



azaroaren erdialdean amaitzen da, Guillermo Mazo Txapelketaren hasierarekin batera.

Zenbat urte daramatzazu Gartzarongo Pilota Txapelketan parte hartzen?

Txikitatik, baina ez nintzen behin ere finalera iritsi. Orain dela bi urtez lortu nuen lehen aldiz hiru partida jarraian irabaztea, baina ordura arte partidaren bat irabazten banuen, pozik. Eta aurten finalera iritsi eta irabazi izanarekin oso pozik nago.

Eta abenduaren 3an Guillermo Mazo Txapelketako finala jokatu zenuen...

Eugiko Aingeru De La Fuenteren kontra jokatu nuen, bai. Bera Ultzaman dabil entrenatzen eta oso maila ona du. Hemezortzi eta hiru irabazi zidan. Aingeruk hala utzi du markagailua partida gehienetan. Finalurrekoa Patxi Loiarteren aurka jokatu nuen eta 18 - 15 irabazi nion. Nahiko justu ibi-

Gartzarongo Pilota Txapelketa izaten duzue ikasturteko lehena...

Bai. Arbizuko Ioritz Gorrotxategirekin batera irabazi nuen Gartzarongo Binakako Txapelketa. Altuna eta Uzquidunen kontra aritu ginen finalean eta 18 - 6 irabazi genien. Gartzarongo txapelketa uztailean hasten da eta



Lagunasesoría S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

li ginen, baina partida ona izan zen. Gainera inguruko lagun eta jende asko etorri zen frontoira animatzera. Banekien final hori ez zela partida erraza izanen, badakidalako aurkaria askoz hobea dela, baina tanto gehiago egitea espero nuen. Pena ematen dit jende asko etorri zelako eta ezin gehiago egin, gainera partida itsusia izan zen.

Baina finalera iristea ere bada meritua...

Bai, bai. Datorren urtean ere jokatuko dut eta ea zer gertatzen den. Aurten Jubenil mailan lehen urtea dut eta ez nuen espero ikasturtea horren ongi hastea.

Eta hurrengo txapelketa zein duzu?

Orain Aimar Saralegirekin Nafarroako Binakako Txapelketa jokatzen ari naiz. eta ondoren izanen ditugu, Lizarrako Txapelketak, Zizurrekoa, Nafarroako Herriartekoa... Udan ez gara asko ibiltzen baina baten bat izaten dugu.

Nola moldatzen zara entrenamendu saioekin?

Ongi. Aurten adibidez, partida asko ditudanez, hemen gutxiago entrenatzen dut, baina hala ere Iñigo Gurrearekin eta Almar Saralegirekin entrenatzen dut eta Lenitz Galarza ere batzuetan etortzen da. Eta Lau eta Erdiko Txapelketa prestatzeko Iñaki

Galarzarekin ere entrenatu izan dut, asko laguntzen dit.

Eta Lekunberriko frontoian entrenatzen duzu?

Astearteko entrenamendua egitera Aldazko frontoira joaten gara, Lekunberriko frontoia beteta egoten delako.

Astean zenbat egunez entrenatzen duzu?

Pilotan astean bitan entrenatzen dut, baina asteburuetan askotan bi partida izaten ditut, hiru ere batzuetan. Eta horrez gain, astean zehar fisikoa lantzen ere saiatzen naiz.

Aurrelaria zara zu. Partidetan zertan asmatzen duzu?

Nik uste mozten pixka bat asmatzen dudala.

Eta zertan ez?

Makurtzen! [Kar, kar, kar].

Eskuak ongi dituzu?

Lehengo urtean gaizki ibili nin-tzen eskuetatik. Eta adibidez Erreterriako Txapelketan ezin izan nuen jokatu horregatik. Aurten hobeto nabil. Baina jokatzen hasi eta eskuak ez badi-tuzu ongi, azkenean ez duzu gustora jokatzen, ez duzu berdin gozatzen.

“Mozten asmatzen dut, baina makurtzea kosta egiten zait”



**M. Angeles
Urrizalki**

**iragarkiak,
berriak,
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario
de Navarra
Korrespontsala**

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

An illustration showing a person in a field, possibly a farmer, working with a horse-drawn cart. The scene is set in a rural landscape with trees and a fence in the background.

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
salteixkak,

sukaldaturako platerak.

Etxera eramateko

zerbiltua ere eskeintzen

dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com

ARAITZ ETA BETELU

Erantzun bikaina izan du Araitz eta Beteluko Kultur Asteak

Aurreko alean aurreratu genizuen bezala aurten ere Araitz eta Beteluko Kultur Astea ekitaldiz betetako egitarauarekin iritsi zen. Azaroaren 30ean Uztegin eskainitako Potxin eta Patxin pailazoen ikuskizunarekin eman zitzaion hasiera kultur aste oparoari. Gai ezberdinak ukitu zituzten hitzaldi ugari eskaini ziren. Abenduaren lehen egunean, igandearekin, Araitz-Beteluko Eguna ospatu zen. Aurten Beteluko plazan egin zen artisau azoka. Bertan zanpantzar eta txistulari artean omenaldian egin zioten M^a Angeles Urrizalki beteluarrari ibarrean, batez ere musikaren alde, egindako lanagatik. Arrakasta handia izan zuen goiz hartarako aurreikusita zegoen Kantugirak. Antolatzaileek esker hitzak baino ez dituzte: "Euskaraz Bizi batzordeak ahalegin handia egin du jarduerak aurrera atera ahal izateko eta guztien gustukoak izateko. Erantzuna bikaina izan denez, eskerrak eman nahi dizkiegu antolatu ditugun saioetan parte hartu duten herritar guztiei, eta bereziki, horien antolaketan laguntza eskaini diguten horiei. Mila esker!".



MENDIALDEA

Aralar-Urbasa Landetxeen Elkarteak webgune berria du

Nafarroako Mendialdea ezagutzera emateko saiakera berezia egiten ari da Aralar-Urbasa Landetxeen Elkarteak. Besteak beste, "Mendialdea zoragarria" argazki lehiaketa antolatu zuen urte amaieran. Lehiaketaren helburua eskualdean dugun ondarea balioan jartzea izan da: herritarrek, paisaiak, herriak, ohiturak, kultura... Joan den abenduaren 14an Plazaola Partzuergo Turistikoaren egoitzan egin zen ekitaldian lehiaketako sari banaketa egin zen. Lehen saria Eli Apezetxeak eraman zuen "Goizuetako zubia, ur ttantatz bizia" argazkiari esker. Bigarren saria Jokin Fernandezentzat izan zen Igaratzen ateratako argazkiagatik eta hirugarren sari Alaitz Eskuderok eraman zuen Goizuetako inauterietan ateratakoari esker.

Bestalde, egun horretan bertan, webgune berriaren aurkezpena egin zuen elkarteak. Bisitariei edo balizko turistek bertaratzeko bidea errazteko helburuarekin sortu du www.aralarurbasa.com ataria. Goizuetatik Iruztunera



bitarte asko dira herriak, ibarrak, txokoak eta zerbitzuak. Horregatik denak bateratu eta eskualdeak eskaintzeko duen guztiaren erakusleho izanen da ataria.

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUK
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatara
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Iruztun

Allprox

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

LEKUNBERRI ETA LARRAUN



Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkeztu dute

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira abenduaren 13an hainbat ekitaldi egin ziren Lekunberrin. Ibarberri ikastetxeko ikasleak patioan elkartu ziren euskarazko abestiak elkarrekin abestera. Ondoren, 2020an burutuko den Euskaraldia ekimenaren aurkezpena egin zen. Haurrek hainbat botila argiztatu zituzten herriko plazan eta haur zein helduek hainbat abesti kantatu eta gero txokolate beroa hartu zuten. Eguna borobiltzeko Aralar Musika Eskolaren eta Larraun Kantuzen eskutik musika kontzertua izan zen Kantinan. 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 4ra egin zen lehen Euskaraldia. Nafarroan 75 batzorde sortu ziren ekimena antolatzeko eta 22.500 ahobizik eta belarriprestek parte hartu zuten. Bigarren edizioa berriz, 2020ko azaroaren 20an hasiko da "Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" lelopean. Egun gehiago izanen ditu oraingoan. Hamabost egunez luzatuko baita ekimena eragina gehiago handitu nahi baita, gehiagorekin eta gehiagotan aritu gaitezen euskaraz. Bigarren edizio honetan, ahobizi eta belarriprest herritarren ariketaz gain, taldeetan hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera izango dute era guztietako entitateetako kideek. Ariguneak sortuko dira, hau da, taldean jarduteko espazioak.



Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIURU bar

ETXEGO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

LAGUNDU MAILA

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

ESKUALDEA

Olentzero joan zaigu mendira lanera...

Aurten ere ez zigun huts egin Olentzerok. Gabon gauean eskualde osoko etxeetatik isil-isilik pasa zen arren, egunez ere hainbat bisita egin zituen gurera. Araxes eta Ibarberri ikastetxeetara Mari Domingirekin batera etorri zen. Araitz eta Beteluko ikasleek hainbat kantu eta antzezlanekin ospatu zuten etorrera eta larraundarrek ere koreografia eta dantza ederrak dantzatu zituzten. Ibarberriko ikasleei Olentzerok eta Mari Domingik sofa koloretsu bat ekarri zieten, inork ez daki ordea nork eskatu duen edo zein erabilera emanen dioten. Abenduaren 24an aurten, ohitura zaharra berreskuratzuz, larraundarrak abesten ibili ziren Iribas, Baraibar, Lekunberri, Errazkin, Lezaeta eta Azpirozko kaleetan zehar. Errazkinen, Azkaraten eta Gaintzan adibidez bes-telako ohiturari eusten diote aspalditik, gabon kantak abestera biharamunean irteten dira. Gaintzan urtero bezala laranja eta piku ugari jaso zituzten etxez etxe allandoetan abesten ibili ziren gaztetxoek. Azpirotzen aurten aspaldiko partez berreskuratu dute Eguberri Eguneako ohitura zaharra. Azpiroztarrek jaiotza biziduna egin zuten eta mezaren ondoren, etxez etxe abesten ibili ziren. Eguberri on denoi!



BASERRI HANDIA SALGAI

Ikusi Idealistan: www.idealista.com

607 524 980

- Etxarri Larraun.
- Porlanezko bi solairu eta ganbara.
- Toki zoragarrian eta etxaurre egokiarekin.

ETXEA SALGAI

- Etxarri Larraun.
- 2 Etxebizitza bakoitza bere sarrerarekin.
- 2 Familiarentzat egokia.
- Lursaila etxebueltan.

607 524 980

Ikusi Idealistan: www.idealista.com



ekin
rotulacion
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

tanatorios
IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

Uztegiko aztarnak Berrian aurkituak



Araxesko ikasleek Berria egunkariak Andoaingo Martin Ugalde Parkean duen egoitza bisitatu zuten. Arg: Araxes Ikastetxea.

2019ko azaroaren 20an berria egunkaria bisitatzera joan ginen Araxes ikastetxeko 5.mailako eta 6.mailako ikasleak. Goizeko 9etan Ainhoa Oiartzabal guraso eta Berria egunkari-ko kazetariarekin elkartu eta Andoainera joan ginen Berria egunkariaren egoitzara. Han, Martxelo Otamendi, Berria egunkari-ko zuzendariarekin elkartu ginen eta elkarriketa egin genion.

Elkarrizketan gauza asko esan zizkigun horien artean bere aita Uztegiko Beloki txikikoa zela eta uda Azkarako Geasin etxean igarotzen zuela. Ordu bateko elkarrizketa egin ondoren, bi taldean banatu ginen eta batzuk hamaiketako egin bitartean besteek Berria egunkariaren egoitza bisitatu genuen, bertan hainbat atal ikusi genituen. Iker Aranburu eskolako gurasoarekin ere egon ginen, bera ekonomia arloaz arduratzen da, honetaz gain aurrekontu arloa, idazleak, kirol kontuak, kultura ere... ikusi genituen ere. Hona hemen Martxelo Otamendiri egindako elkarrizketa.

Zer da gehien gustatzen zaizuna zure lanetik? Eta gutxiena?

Kanpoan ibiltzea, bidaiatzea. Kazetari izateak ate asko irekitzen dizkigu. Gutxiena: giza harremanak, ez gaudelako ikasiak giza harremanak kudeatzen. Erabakiak batzuetan jendeari gustatzen ez zaizkielako.

Pentsatu duzu lana uztea?

Ez, oso gustura nago. Laster erretiratu behar dut eta ez dut nahi. Euskara irakaslea izatetik EITB-ko programa

“Asko gustatzen zait elkarrizketak konbertsazio baten ondorio izatea”

baten zuzendaria izatera eta handik egunkari baten zuzendaria izatera pasa nintzen. Gehien bete nauena hau izan da. Ez dut sekula pentsatu “hobe lan hau hartu ez banu”.

Zenbat atal ditu egunkari batek?

7 edo 8 izango ditu: Euskal Herria; Eukal Herria gizarte; Euskal Herria politika; Ekonomia; Mundua; Gizartea; Kirolak; Kultura eta Bizi giroa.

Zaila al da lana?

Ez da zaila. Oso motibagarria da.

Nola egiten dituzu elkarrizketak?

Oinarri bat eramaten dut gai batzuk lantzeko, baina asko gustatzen zait elkarrizketak konbertsazio baten ondorio izatea. Ez galdera eta erantzuna. Hari bat egon behar da, narrazio bat lotura batekin.

Zein testu egiten zaizu zailen idaztea?

Kronika. Ohituta nago analisia egitera eta oso librea da. Irakurleentzako interesgarri dena idatzi behar duzu.

Nola iritsi zinen kazetari izatera?

Kasualitatez. Euskaltegian lanean nengoela, irakasle batzuei tarteka idaztera animatu gintuzten. Hilean bi aldiz edo idazten genuen. Goitizenekin idazten genuen ez genuelako nahi jakitea Euskaltegiko irakasleak ginela idazten genuenak. Ez dakit nola, baina EITB-koek jakin zuten ni horietako bat nintzela eta programa baten zuzendari izateko deitu zidaten. Han nengoela Euskaldunon Egunkariatik deitu zidaten. Baina txirripaz nago hemen, kasualitatez.

Badakigu zure aita Uztegin jaio zela. Askotan joaten zara?

Ez, oso gutxitan. Azkeneko aldiz osaba Martinen hiletan. Tarteka lagunekin Uztegi eta Azkarate erakustera joaten naiz. Garai baten joaten ginen Beloki txikira osaba bisitatzerara. Han osaba bizi zen eta morroientzako sukaldea eta logela bat eta baratze zati bat egoten zen. Gero osabak baserria saldu zuen, morroien logela, sukaldea eta baratze zatia salbu. Baldintza batekin saldu zuen: zati horretan biziko zela erosleekin bizi bitartean. Osaba-izebak hil zirenetik bitan edo egon naiz bertan. Azkaratera ere festetara joan izan naiz.

Telebista edo egunkaria: zer duzu gustukoago?

Kameren aurrean oso gaizki

pasatzen nuen. Nahiago aukeran egunkaria eta irratia, tertulietan parte hartzea. Lanbiderako egunkaria. Telebistan kamera aurrean lana egitea ez. Bestela bai.

Nola bizi izan zenituen Egunkaria itxi zuten egun horiek?

Gogor. Bost egun egon nintzen atxiloturik, inkomunikatuta, Guardia Zibilaren esku. Torturak jasan genituen. Gogortasun horrek ateratzerakoan asebetetzea ekarri zuen, sekulako elkartasuna sortu zelako Euskal Herri osoan eta kanpoan, Katalunian, Espainiako toki askotan eta baita Europan ere. Berehala iritsi zitzaigun jendearen berotasuna. Guk zorzea izan genuen. Jendeak sekulako erantzuna eman zuen. Donostian sekula egon den manifestaziorik handiena gu atxilotuta geundela egin zen. Ateraginenean jakin genuen zer gertatu zen eta jendearen berotasuna eta maitasuna sentitu genuen. Hiru urte pasa nituen hitzaldiak, mahai-inguruak, gonbidapenak, bidaiak eta elkarrizketak egiten.

Zer desberdintasun dago telebistaren, irratiazen eta egunkariaren artean?

Desberdintasuna da paperak denbora gehiago ematen duela pentsatze-

“Donostian sekula egon den manifestaziorik handiena gu atxilotuta geundela egin zen”



“Hizkuntzak beharrezkoak dira, batez ere ingelesa”

ko. Elkarizketa bat egiten duzu eta denbora duzu paperera pasatzeko, titularra pentsatzeko... Irratian oso azkarra da. Pentsa hamaiketan albisteak direla eta bost gutxitan Benito Lertxundi hil egin dela. Bost minutu dituzu informazioa lortzeko. Gu, ordea, goizeko hamaiketan sartzen gara eta Benito Lertxundi hilko balitz arratsalde osoa izango genuke argazkiak aukeratzeko, bere informazio guztia biltzeko etab.

matzen dute guk egiten dugun lana. Lan arduratsua da.

Kazetari bezala zer gustatzen zaizu gehien?

Zuzendari izatea, eta herrialde desberdinetako informazioa hartzea.

Zergatik utzi zenion irakasle izateari?

Goxoki goxo bat eskaini zidatelako. 80ko hamarkadan telebistara joatea eskaini zidaten. 1993. urtean eskaini zidaten Euskaldunon Egunkariaren zuzendari izatea, aste bateko epea eskatu nien pentsatzeko eta hirugarren egunean eman nuen baiezkua. Telebistan oso ongi nengoan, oso ongi kobratzen nuen, baina karamelu goxoa jarri zidaten aurrean eta baietz esan nuen. Telebistara abenturaren bila joan nintzen eta baita Egunkariara ere. Irakasle ibilbidea pixka bat agortuta neukan, nahiz eta gero tarteka sei hilabeteko baimena eskatu eta klaseak ematera bueltatu nintzen.

Lagunariak al dira hizkuntzak kazetaritzan?

Bai beharrezkoak dira, batez ere ingelesa. Gaur egun hizkuntza komuna delako, adibidez frantses, aleman, italiar edo perutar batek bigarren hizkuntza ingelesa du. Hau da hizkuntza pilo bat daude non bigarren hizkuntza ingelesa duten.

Zer behar du kazetari batek ongi komunikatzeko?

Zorroztasuna eta ausardia batez ere. Ausardia telefonoa hartu eta deitze-ko, informazioa jasotzeko ausardia. Adibidez Neymarren zenbait datu nahi baditugu hoberena zuzenean berari deitzea da, agian ez dugu ezer lortuko baina saiatu egin behar da. Deitzea eta astuna izatea, horrela askotan lortzen dira zenbait jendekin elkarizketa bat. Gure lan erdia jendeari gauzak proposatzea, eskatzea eta ahalegintzea da eta beste erdia horren emaitzak jasotzea.

Internetek lagundu al du elkarizketak egiteko garaian?

Lagundu du gauzak azkar egiteko. Zabaltzeko laguntzen du.

Egunkaria itxi eta Berria ireki arte zer egin zenuten?


Nik hitzaldiak eman, beste batzuk egunero egunkaria egiten egon ziren eta beste batzuk gertatutakoa salatzen.

Ba al zenekien kazetari izaterakoan bidaiatu egin behar zenuela?

Ez, baina gazteetatik izan naiz oso bi-daia zalea.

Nola sentitzen zara Berria egunkarian zuzendari bezala?

Ongi, oso estimatua, oso langile finak dauzkagu eta hartzaileek asko esti-



Martin Ugalde Kultur Parkeko Berriako erredakzioa ezagutzeko aukera izan zuten. Arg: Berria egunkaria.



Gazta bat gehiago aurten, guztira hiru

Zazpigarren urtez egin dute hitzordua Araitz eta Beteluko Oier Taldeak Oier Sanjurjorekin. Joan den abenduaren 6an bazkari baten bueltan elkartu ziren Zigari Elkartean. 25 haur eta helduk Osasunako jokalariairekin egunaz gozatu zuten. Eta nola ez, agurtu aurretik jada tradizio bilakatu den oparia jaso zuen Oierrek. Denboraldian egindako gol bakoitzeko eskualdean ekoiztutako gazta bat. laz bi izan ziren eta aurten berriz joan den denboraldian sartutako hiru golei esker hiru gazta.

Lekunberrin izanen du helmuga Espainiako Vueltako 5. etapak

Joan den hilean aurkeztu zuten 2020an izanen den 75. Espainiako Vuelta. Abuztuaren 14an, Herbeheretan izanen du hasiera, Utrechtan eta irailaren 6an amaituko da Madrilan. Lehen hiru etapak Herbeheretan egin eta gero, laugarrena Irunen hasiko da eta Arraten amaituko da. Biharamuneko etapak Nafarroako hiriburuan izanen du irteera eta Aralar zeharkatuz Lekunberrin helmuga. Lekunberriko Udala pozik agertu da albistearekin, bertako merkataria eta ostalarientzako onuragarria izateaz gainera, herria nazioartean ezagutzera emateko balioko duelako. Bosgarren etapa horren egunean bertan egingen diren ekitaldiez gainera, 2020an zehar txirrindularitzarekin lotutako hainbat jarduera antolatuko direla aurreratu du.



Ilbeltzaren 12an atera korrika Araitz-Beteluko Krosean!

Hamabost urte beteko ditu aurten Araitz-Beteluko Krosak. Ilbeltzaren 12an izanen da lasterketa. Goizeko hamarretan haurrek euren adinera egokitutako lasterketa izanen dute Araxes ikastetxearen aurrean eta hamabietan emanen zaio hasiera lasterketa nagusiari Beteluko plazan. Eman izena www.kirolprobak.com atarian edo egunean bertan lasterketaren aurretik jarriko den mahaian.



Igor Nazabal txapeldun Nafarroako Banakako Txapelketan

Igor Nazabal beteluarrak Araxes Pilota Taldean entrenatzen du. Oherenan jokatzera eman du saltoa ikasturte honetan eta antza denez ongi egokitu da aldaketara. Joan den azaroan Nafarroako Pilota Federazioak antolatutako Banakako Txapelketako finalera iritsi zen Kimu mailan eta baita irabazi ere. Alde handia atera zion gainera Ibai Oltzari. Hemezortzi eta bostean gelditu zen markagailua Altsasun jokatu zuten finalean. Orain Banakako Txapelketan dabil sartuta buru-belarri. Zorionak eta zorte on Igor!

Beteluko Udalak 2019. ekitaldiko balorazioa eta 2020ko aurreikuspena egin du

Urte amaiera mugitua izan du Beteluko Udalak. Joan den ekainaren 15ean udal berria eratu zen eta legegintzaldi berriarekin batera udalaz gaindik erakunde eta batzordeetan udal ordezkariak dituzten eginkizunak banatu zituzten. Zinegotziek batzarretara joateagatik 72 euro kobratuko dituzte (urtean hamabi batzar) eta alkateak lanaldi erdian jarraituko du, urteko 15.146,40 euro kobratuz.

2019a urte oparoa izan da Beteluko Udalean egin diren eta egiten ari diren obrei dagokienez batez ere. Herriko hainbat kaleetan herritarrentzako endredu handia sortu badute ere, beharrezkoak ziren berritze lan garrantzitsuak egin dira. San Pedro eta Elostia iparreko proiektu eta kontadore aldaketa egin da. Zezkotik datorren erreka kale azpitik eramateko, hasiera batean, metro bateko zabalerako hodi borobila jartzea aurreikusuten bazen ere, Kantauriko Ur Konfederazioarekin adostuta 1,80metro x 1,20metroko hodi oboidea jarri behar izan du. Kale horietako sarea eta zoladura berritu da. Lan horiek Nafarroako Gobernuak diruz lagundu du eta Apezetxea Anaiak S.L. enpresari esleitu zitzaion lanen egikaritzea.

Proiektuaren zuzendaritzaz bestalde Jose Miguel Rodriguez Ezpeleta arkitektoa arduratu da. Andubiko errekarerekin biltzen den punturaino eraberritu dira hodiak. 500 urtean behin egin iritsi litekeen ur emariaren igoeira bortitzari aurre egiteko adina edukiera dauka.

“Kontribuzioa %5 igoko da Betelun, baina gainerako tasak eta zergak berdin mantenduko dira, igoeira horren eragina jaitsiz”

Mikel Rekalde alkatea: *“Aipagarriena da Elostia baserriko goialdean kaleari egin zaion zabaltzea. Ibilbide guztian zehar aldapa banatu eta malgutu egin da, malda gogorrenak kenduz. Azken finean, kale honetako ibilgarritasunean hobetze handia lortu da. Argiteria publikorako lau puntu ere aurrikusi dira eta, espero da lehen oso gutxi erabiltzen zen kale honetan erabilera nabarmen igotzea, batez ere, lpiarrea eta Etxaburuako hainbat aukiderentzat”.*

Diru-laguntzarekin egin dira ere

Errexilbordako bidearen zati baten zolatzea eta Beteluko balorazio txosten berria.

Gainera, Asistencial Villa de Betelu S.A.-rekin dagoen mailegu parte-hartzailea luzatu egin da, kirol instalakuntzetan segurtasuna hobetzeko neurriak hartu dira eta Caixa Fundazioko eta Tokiko Agenda 21 diru-laguntzei esker, Amavir Beteluko egoitzaren aldamenean estalpea eraiki da. Azken lan hau Koldo Kerejeta S.L. enpresari esleitu zitzaion.

Urte berriarekin batera, ekitaldi berriari ekin dio Udalak eta 2020. urteko aurrekontua onartu da 577.000 eurokoa. Aurreikusitako proiektu nagusien artean daude Mitxelazenea hegoko kalea, Sanpedrokoaren jarraian dagoen bide zatia eta Ipintzeko bidea ere lizitatzen ari da. Horrekin batera ataka kanadiarra jarri nahi da Maizti parajearen. Gainera aurreko legegintzaldian hasitako Hirigintza Plana berria osatzen jarraituko du.

Intzan, Urzokon, ur neurgailua jarriko da ur hartzearen gaineko kontrola eramateko eta uraren erabilera jasangarria bermatzeko. Beteluko Udalak proiektua aurkeztu zuen eta Kantauriko Ur Konfederazioan onartu du jada.

Hodi handiagajartzeak uholde arriskua nabarmen murriztuko du.
Arg: Beteluko Udala.





2020RAKO TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK ONARTU DIRA

Aldaketa nabarmenena kontribuzioan emango da, %5 igoko baita. Igoera horren arrazoi nagusia onartu berri den ponentzia txostena da, ondasunen birbalorazioa gertatu baita. Hala ere, ura ez da igoko eta gainerako prezio eta tasak berdin mantenduko dira, horregatik kontribuzioaren igoeraren eragina jaitsi eta igoera globala normala izanen da.

Sareen eta zoladuraren berritzeaz gainera, nabarmen aldatu da Elosta kalearen itxura. Eta beheko irudietan ikus liteke zein dimentsio-tako lanak egin diren herriko zenbait tokitan.
Arg: Beteluko Udala



Amavir Betelu egoitzaren alboko lur publikoan estalpea eraiki da.
Arg: Beteluko Udala.



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Inigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

IORTIA EL INCA ESTRETA HORTZ ESTETIKA
Juanjo Gaitte Garcia · Odontologoa Kol. Zokia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zokia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



Diosala

“Diosala ittea errex da, eune alaitzen du”. Hoixe da Beteluko eskolako kristal haundietean aldenik alde zintzilik daukuen pankartan jartzeona. Aio, eun on, bihar arte (...) latza da geo letra larriz jarri beharra berez atea beharko lukena.

Zer da diosala? –galdetu ziten lehengo’atean ume’atek eskola-atrain. Pankarta etzun ongi entendittu nonbatte. Hitz magikoak re esaten zaie, magia horrekin erakargarrigoak izango deelakoan: kaixo, eskerrik asko, ez horreatik; eunon, faborez, bihar arte, ongi ibili, aio...

Eztakit, ordea, magiak asko iraute ote’on, gure ttikiri orokorrean ahaztu itten zazkie ta hitz magikoak. Mendi buelta gehio in beharra dauzkue. Izan e, mendiek bado diosala besarkatzeon magia bereziet. Mendin gailtzenean, berdin Ttutturen, Artxueta, Guratzen, Albin o Elostan, Torreanean, Mallo-Zarrea o Piriniotan; izardie kopetean ta diosala ezpañean. Kaixo, iepa, aupa, iep, hola, eup!! Bat, bi, dozenerdiko koadrille, o munduet jende; denai eta denak errosario bera alkarr: kaixo, iepa, aupa, iep, hola, eup!!

Naturalki ateatzea diosala mendin, eskuñeko hankaan atzetik ezkerrekoa ateatzen bezalaxe. Aiturek itte ote’o ba? Haunditasun hartan hankagorri denok laun-hurko bihurtzen ote gea ba? Entenditzeko ez ta errex mendi, baso o naturen erdiko diosala hoina. Batzutan nekagarri xamarra re izate’a: aldapa pikotan nekeak estututa ezkerrekoak ez dionean seittu nahi eskuñeko hankai, ta halai, kaixo, iepa, aupa, iep, hola, eup!!

Zeatik diosala debalde ta goxo bi segundutan kruzatu duun arrotz bati, seuraski sekule gehio ikusiko ez duun horri? Ta zeatik diosola hain garesti eunero-eunero ikusteun horri? Orbela, lurre o zapalitako belarra eta asfaltoan arteko bire lauso hortan, non ta noiz galdu ote giñun ba letra larrie, elkarrekiko errespetue, non ahaztu diosala?

Nature beste adornoik eztaunean ingurun, beste ezerk makillatzen eztonean giza legea, bi pertsona aurrez aurre, izardie kopetean, arnas estue, beitture azkar bat eta diosala; naturala.

Urte berri magikoat dizuet opa, hoixe nere diosala!

ILBELTZA**12 | ARAITZ ETA BETELU:**

Araitz eta Beteluko Krosa.

10,17,24,31 | ESKUALDEA:

Aralar Musika Eskolak "Musika eta mugimendua" izeneko ikastaroa eskainiko du. Ikastaroa 2016an jaiotakoei zuzendurik dago. Eman izena 672 122 472 telefono zenbakian edo info@aralar.org e-postaren bitartez.

18 | LEKUNBERRI:

Marta Alejandrek eskainitako hitzaldia eta proiektioa. Ttuturrek antolatutako jarduera.

25 | IZKI MENDILERROA:

Ttuturreko mendizaleek Izki Mendilerroa ateraldia egingen dute. Eta otsailaren 1ean elkarteko kideek urteroko bazkaria egingen dute Oderizko Juanluzenea Sagardotegian.

**LAN-ESKAINITZA**

Aizarozko ostatua kudeatzeko eskaera epea zabaldu du Basaburuko Udalak. Interesa izanez gero jarri harremanetan: 948 503 035.

LAN BILA

Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

SALGAI

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIRO-CA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646870837 (Bixente).

**EROSTEKO**

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

TAXILON

Lontxo Otamendi Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



UITZIKO IHOTEAK

Urtarrilak 11, larunbata

11:00 Gosaria

14:00 Herri-bazkaria

22:00 Herri-afaria. Ondoren Dj Oixani.

Urtarrilak 12, igandea

10:00 Puska-biltza.

16:00 Kafea eta pastak Merkuualde elkartearen.